

Mitzuli: mugikorra itzultzaile bihurtzen duen aplikazio librea

Testua, audioa eta irudiak 50 noranzkotan baino gehiagotan itzultzeko gai den aplikazioa sortu du EHUko IXA Taldeko Mikel Artetxe ikertzaileak

Mitzuli izeneko androiderako itzultzaile automatikoa sortu du EHUko [IXA Taldeko](#) Mikel Artetxe ikertzaileak. Aplikazioa gai da testuak, audioak eta irudiak itzultzeko, 50 itzulpen-noranzkotan baino gehiagotan. Sarean nahiz saretik kanpo lan egiteko gai da, eta software librea da. Doan eskura daiteke [Google Playn](#).

Idatzizko testuak izultzeaz gain, Mitzuli gai da mugikorri ahotssez esandakoa itzultzeko, eta baita kameraren bidez hartutako irudiak itzultzeko ere. Adibidez, kartel, menu edo egunkari batean jartzen duena itzuli nahi izanez gero, nahikoa da mugikorrarekin argazkia ateratzea. Itzulpena ere idatziz eta ahots bidez eman dezake; hala, nola ahoskatzen den ere jakin ahal izango dugu erabiltzaileak.

Arreta berezia jarri du Artetxek baliabide gutxien dituzten hizkuntzetan, “izaera komertzialeko produktuek albo batera utzi ohi dituzte eta”. Hala euskaraz gain, afrikaansa, aragoiera, asturiera, daniera, errumaniera, esperantoa, frantsesa, galiziera, gaztelania, hindia, indonesiera, ingelesa, italiara, katalana, kroaziera, malaysiera, nederlandera, okzitania, portugesa, suediera eta urdua itzultzeko gai da Mitzuli.

Hizkuntza gehiago ere izango dituela iragarri du Artetxek. Eta, berak ez ezik, horretarako gaitasuna duen edonork ere aukera du aplikazioa hobetzeko, edo bere beharretara egokitzeko; izan ere, software librea da.

Artetxek [Mitzuliren webgunean](#) dioenez, “Mitzuli berezi-

ki aipagarria egiten duena da beste proiektu zoragari batzuetan oinarritzen dela bere funtsezko funtzionalitatea eskaintzeko”. Izan ere, “Mitzuli bezalako proiektu txiki batentzat erabat pentsaezina litzateke gutxieneko kalitate bat duen itzultzaile automatikoa bat hutsetik eraikitzea” dio Artetxek. “Itzulpen automatikoa problema ireki bat da, oso-oso zaila, eta komunitate izugarri bat dago arlo horretan lanean”.

[Apertium](#) plataformaren bidez egiten ditu Mitzulik ia itzulpen guztiak, euskaratik gaztelaniarako barne. Gaztelaniatik euskarara itzultzeko, berriz, Matxin, erabiltzen du, IXAk Elhuyarrekin lankidetzan garatutako itzultzaile

automatikoa. Kamerak hartutako irudietako karaktereen ezagutzarako [Tesseract](#), [OpenCV](#) eta [Leptonica](#) erabiltzen ditu. “Teknologia harri-garri hau guztion eskura jarri dute, eta guk aplikazio xume batean bildu dugu jendearengana irits dadin” dio Artetxek.

Itzulpenen kalitateari dagokionez, desberdintasunak nabarmenak dira, hizkuntzaren arabera. Adibidez, gaztelaniatik euskarara itzultzea, gaztelaniatik katalanera itzultzea baino askoz zailagoa da, bi hizkuntzen arteko distantzia askoz handiagoa delako. “Badakigu itzultzaile automatikoak perfektio oso urrun daudela, baina oso lagungarriak izan daitezke” dio Artetxek.

Uda bateko proiektu pertsonal modura hasi zuen Artetxek, eta bi urtez aritu da aplikazioa garatzen, “nire kasara, denbora neukanean eta inolako presiorik gabe”. Eta bidean Elhuyarren babesa jaso du: “Elhuyarrek laguntza handia eman dit lokalizazioetan, zerbizariaren kudeaketan eta komunikazioan, besteak beste” dio Artetxek. Eta oso pozik dago, espero zuena baino askoz oihartzun handiagoa ari delako izaten. “Doakoa da, eta asmoa ez da negozio bat egitea honekin, baina gustatuko litzaiguke jendearengana heltzea, pentsatzen dugulako erabilgarria izan daitekeela”. ●

